OIARTZUNGO
UDALA

BERTSOLARITZAREN BIDEZ OIARTZUNGO GAZTETXOEN AHOZKO KOMUNIKAZIOA LANTZEKO EGITASMOA GAUZATZEKO ZERBITZU-KONTRATUA. 2. LIZITAZIOA.

PROZEDURA IREKI ERRAZTUA

-BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA –

ESPEDIENTE KODEA:	**2025KO170003**

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea bertsolaritzaren bidez Oiartzungo gaztetxoen ahozko komunikazioa lantzeko egitasmoa kudeatzea da.

Bertsolaritzaren bidez Oiartzungo gaztetxoen ahozko komunikazioa lantzeko proposatuko den egitasmoaren baitan, zerbitzua eskaini nahi den unibertsoa Oiartzungo ikastetxeetako LH 5 eta LH6 mailek osatzen dute.

Dokumentu honen helburua zerbitzua kontratatzeko baldintza teknikoak ezartzea da.

Plegu hauetan zehaztutako baldintzak oinarrizko ezaugarriak dira, eta beraz, esleipendunak guztiak bete behar ditu.

2. EGIN BEHARREKO LANAK

Egitasmoaren **oinarriak** ondokoak izango dira:

- Bertsogintza bitartez, ikasleen euskararen erabilpen maila eta kalitatea handitzea izango da helburua.
- Bertsotarako zaletasuna piztea eta bertsogintzari eskolako jardunean funtzionalitatea emanik, zaletuen beharrak eta gogoak elikatzea.
- Era berean, proiektuak bere helburuen artean ikasleekin genero ikuspegitik lan egitea jasoko du, harreman berdinzaleak sustatzeko kontzeptu eta baloreetan oinarrituko da eta genero, sexu-identitate edota sexu-orientazioagatiko diskriminazioak gaitzestea sustatuko du.

Jardueraren **ezaugarriak** eta esleipendunaren **eginkizunak** eta **betebeharrak** honako hauek izango dira:

ESKUbe0ae360-c49c-4bad-86b1-5014f4da32d0

Eskola orduko saioak:

- Hartzaileak LH-ko 5. eta 6. mailako ikasleak izango dira eta bertsolariak ordubeteko eskola emango du hamabostean behin, zerbitzua eskatzen duten Oiartzungo ikastetxeetan.
- Ikasturterako beharrezkoa den materiala ekoiztu eta banatuko du

Eskola orduz kanpokoa:

- Jaialdia: ikasturte amaieran ikastetxeekin eta udalarekin koordinatuta jaialdia antolatuko du esleipendunak, herritarrei irekia.

Ebaluazioa:

- Ikastaroaren ebaluazio jarraia egingo du enpresa esleipendunak. Maila areagotzeko faktore kritikoak detektatu eta, behar izanez gero, neurri zuzentzaileak aztertu eta bideratuko ditu.
- Ikasturtean zehar, enpresa esleipendunak jarraipen batzordea deituko du egitasmoaren berri emateko. Jarraipen batzordean, enpresa esleipendunaz gain, Pasaia, Lezo, Errenteria eta Oiartzungo udalek eta egitasmoa garatzen ari diren lau udalerri horietako ikastetxeek hartuko dute parte.
- Ikastaroa egin ondoren, emaitzak aztertuko ditu enpresa esleipendunak (maila, interesa...) eta ebaluazio txosten batean bilduko ditu datu horiek. Emaitzen azterketa egin ondoren, datozen urteetan egitasmoari jarraipena emateko bideak aztertuko dira udalaren eta ikastetxeen ordezkarien artean.
- Enpresa esleipendunak, udalak eskatzen dizkion argibide guztiak emango ditu, bai forma dokumentalean baita beharrezko bilera eta harremanen bitartez ere.
- Ikasturtean zehar proiektuan parte hartzen duten ikasleek ekoiztutako lanak liburuki edo liburu batean bilduko ditu enpresa esleipendunak, eta horren ale bana banatuko beharko du parte hartzaileen artean.
- Hizkuntza ez-sexista erabiltzea dokumentuetan, publizitatean, irudietan, eta kontratuaren ondorioz sortzen den gainerako materialean; emakumeen diskriminazioa areagotzen duen irudirik ez erabiltzea eta berdintasuna, aniztasuna erantzunkidetasuna eta kideko balioak sustatzea; eta generoaren araberako ikuspegia kontuan hartzea kontratuaren ondorioz sortzen diren txostenetan, idazkietan, datuetan, estatistiketan...
- Bertsolariak, ordezkatu behar izanez gero, berezkoenaren pareko prestakuntza maila eta esperientzia izan beharko dute ordezkoek, eta egiaztatu egin beharko da hori jatorrizko ziurtagiriak aurkeztuta; betiere, ordezkoak lanean hasi aurretik.

ESKUbe0ae360-c49c-4bad-86b1-5014f4da32d0

- Proiektuan parte hartuko duten irakasle guztiek bertsolaritza eta ahozkotasuna ikastetxean lantzeko beharrezko formazioa jasoko dute. Horretarako Bertsozale Elkarteko formazio planean parte hartuko dute.

3. ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA.

Kontratatutako egitasmoen zuzendaritza eta ikuskapena udal Hizkuntz Normalizazio sailak burutuko du. Hori horrela delarik, esleipendunak behar beste erraztasun emango dio udal Hizkuntz Normalizazio sailari aipatu zuzendaritza eta ikuskapena egin ahal izan ditzan.

Kontratua indarrean dagoen epean honako konpromisoak hartzen ditu Oiartzungo Udalak:

a.- Kontratatutako zerbitzuen funtzionamendu egoki baterako kontratistak behar dituen laguntzak eta aholkuak ematea.

b.- Lanen zuzendaritza eta kontrola eramatea, Hizkuntz Normalizazio sailaren bitartez.

c.- Egitasmoa gauzatzeko udalak egoki ikusten dituen material eta euskarriak (eskuorriak, kartelak…), zerbitzua emango duen enpresaren eskura jartzea.

4. GIZA BALIABIDEAK eta HIZKUNTZA

Esleipendunak beharrezkoak diren giza baliabideak jarri beharko ditu plegu honetan zehazten diren lan guztiak betetzeko, eta orokorrean zerbitzua modu egokian emateko.

Enpresa esleipendunak udalaren hizkuntz jarduera arautzeko planen arabera jokatuko du.

Hizkuntza Gaitasuna: Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza-gaitasunei dagokionez.
Kontratuak herritarrekin, zein administrazioarekin, ahozko zein idatzizko harremana izatea eskatzen duenez, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila eskatuko da.
Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza-gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza-gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Erabilera administrazioarekin: kontratu egileak aukera izango du kontratu mota honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz eskatzeko esleipendunari

ESKUbe0ae360-c49c-4bad-86b1-5014f4da32d0

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) 62 eta 210 artikuluak jarraiki:

a) Kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza-baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.
b) Ikuskaritza kontratu bukaeran ez ezik, modu jarraian ere egingo du kontratu-arduradunak, berariaz prestatutako jarraipen-euskarriak erabilita, sor daitezkeen hutsegiteak zuzendu ahal izateko.

Klausula honetako eskakizunak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira sektore publikoko kontratazioa arautzen duten xedapenen arabera; beraz, ez betetzeak kontratua suntsiaraz dezake.

5. EMAKUME ETA GIZONEZKOEN BERDINTASUNA

Jendartean egun oraindik ere indarrean dauden sexuen generoen arteko botere-harremanak kontuan hartuta, eskaintzen den zerbitzua hezkidetzan eta sexu genero-berdintasunean oinarritutakoa izango da.

Hori horrela, garrantzitsua da egitasmoak genero ikuspegia txertatua izatea, ikasmaterialetan genero berdintasuna islatzea eta irakasleek gaiaren inguruko formazioa izatea.

Oiartzunen, sinaduraren datan
Elektronikoki sinatua

Aitziber Arnaiz Garmendia
Hizkuntz Normalizaziorako teknikaria

Nork Sinatua / Firmado por: AITZIBER ARNAIZ GARMENDIA - 34109689E
2025/07/08 14:44:24

EKS | CSV: ESKUbe0ae360-c49c-4bad-86b1-5014f4da32d0
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310